

## Buletineko gaiak:

1. Haurtzaro Ikastolako motxila
2. Santa Ageda bezpera: otsailak 4
3. Haurtzaro Ikastola taldea Lilatoian

## Berri orokorrak

### 1. Haurtzaro Ikastolako motxila erosteko azken egunak



Aurtengo matrikulazio kanpainako **motxila urdina** erosteko epea asteazkenean itxiko dugu, **otsailaren 2an**.

**Gogoratu 15 euroko prezioa** duela, eta eskuratu nahi duzuenek inprimaki honetan egin behar duzuela eskaria: <https://forms.gle/vEE4XiWW4Epjr5T6>

### 2. Santa Ageda bezpera, otsailak 4: *Oles Oles, lurra esna zaitez*

Otsailaren 4an, ohitura zaharra berrituz, makila eskuan eta txapela buruan, ikastolako ikasleek entseatu eta geletan **OLES OLES** kantatuko dute, lurra esnatzeko helburuarekin. Eguraldia lagun bada, LHko ikasle zaharragoek emanaldia eskainiko diete kide gaztetxoei, arratsaldean, ikastolaren aurrealdean. Osasun egoerak aukera ematen bada, DBHko ikasleak auzoetan ibiliko dira.

### 3. Lilatoian parte hartu nahi al duzu? Etorri HAURTZARO IKASTOLA taldearekin!

HAURTZARO IKASTOLA Lilatoian izango da aurten ere, hirugarren aldiz, *100 baietz!* lelopean. Lilatoia lasterketa emakume askorentzat kirolean lehen urratsak emateko erreferentzia bilakatu da, hori dela eta, Haurtzaro Ikastolako langileak garen emakume talde batek ikasle talde batekin parte hartu nahi dugu ikastolaren izenean. Zuk ere parte hartuko al duzu? [Bete ondorengo galdetegia](#) eta etorri HAURTZARO IKASTOLA taldearekin!

Lasterketa presentziala izango da, indarrean dauden babes neurriak hartuta. Inskripzioak egiteko epea atzo ireki zen eta aforoa mugatua izango da, beraz ez galdu denbora eta lehenbailehen izena eman



<https://lilaton.es/eu/izen-emantea/>. Martxoaren 6an goizeko 10:30ean izango den 32. edizioan parte hartzera animatzen zaituztegu. Berdintasunaren aldeko lasterketan Haurtzaroko komunitatea osatzen dugun ikasle, guraso eta langile emakumeak elkartzea espero dugu.

Animatzen al zara gurekin batera parte hartzera?

2022an ere LILATON mareak EZ DU MUGARIK IZANGO!

